

AITA MARTZEL BERTSOLARI

“Basotxoritxu”

1

- Hori dok hori izenburua:
“Aita Martzel bertsolari”!
- Holan izan da argitaratu daben lagunen gurari.
- Zek eraginda ekin deutsozu horrenbesteko lanari?
- Erantzun nahiak hango-hemengo lagunen eskariari.

2

- Kontau al dozu arlo horretan emon dozun denporea?
- Berrogeita hamar urte badira sortu zan lehen lorea.
- Zek emon deutsu hainbat urtetan argia ta adorea?
- Bizitzak berak, sinismenak ta bihotzeko umorea.

3

- Askotariko bertsoak dira nundik jaso dozu gaia?
- Bizitzak eta apostolutzak eskeini deuste zernahia.
- Orri artean nahastean datoz pulpitua eta mahaia...
- Ahalegindu naz bizitza dedin anaitasunezko jaia.

4

- Bertsozale zarala nunahi da ezagun
- Bertsoa izan dot nik bizitzako lagun.
- Izatez ta egitez zu beti euskaldun
- Euskaldunok bertsoan zer pitxi daukagun

5

- Krisialdian zeinek erosi horren liburu mardula?
- Doan daukazu hartu, eroan eta on egin deizula.
- Praile izanda, merezi dozu sekulako matrikula.
- Herri-laguntzaz moldatu da ta, bera jabe dakigula.

6

- Danen partetik opa deutsut gaur txapel zabal biribila
- Ontzat ta aintzat hartzeagaitik zuoi danoi esker mila.
- Bertsozaleak asko dira ta nora joan bere bila?
- EUBAN bakarrik banatzen da ta honuntz etorri dedila.



A. Martzel